

Gureak-en prestakuntza-tailerretako **30 pertsonak** parte hartu dute «**Bizitzarako Finantzak**» ikastaroaren IX. edizioan

Kutxabank Eragin-ek desgaitasuna duten kolektiboak sartu ditu finantzen arloko prestakuntza-ikastaroetan, arrakastaz sartu ere

- **Irakasleek esan dutenez, oso lagungarria izan zaie etxeko ekonomia batek nola funtzionatzen duen ulertzeko eta diruaren balioaz jabetzeko**
- **2023-2024 ikasturtean 2.500 ikasle inguruk parte hartu dute (inoizko kopururik handiena da)**
- **Prestakuntza-eskaintza DBHko 3. eta 4. mailetan, Batxilergoko 1. mailan eta Oinarrizko Lanbide Heziketan matrikulatutako 13 eta 17 urte bitarteko ikasleei zuzenduta dago, ikastetxe publikoetakoak zein itunpekoetakoak**
- **Euskararen erabilerak gora egin du berriz ere jokoan, ikasgelen % 75ek parte hartu duen hizkuntza izan baita**

2024ko ekainak 26an. Guztira, DBHko 3. eta 4. mailetako, Batxilergoko 1. mailako eta Oinarrizko Lanbide Heziketako 1. mailako **2.432 ikaslek**, EAEko **ikastetxe publikoetako eta itunpekoetako 123 gelatakoak**, beren eguneroko bizitzarako behar dituzten finantza-trebetasunak eskuratu dituzte, Kutxabank Eragin-en eskutik, Aurrezki Kutxen Fundazioaren (Funcas) laguntzarekin, «**Bizitzarako Finantzak**» ikastaroaren **IX. edizioan**.

Finantza-prestakuntza **Kutxabank Eragin-ek** hartzen duen bankuaren iraunkortasunaren arloko ekintza-ildoetako bat da. Sustatzen duen proiektu pedagogikoetako bat «**Bizitzarako Finantzak**» da. Finantzen hastapenak irakatsi dizkie **13 eta 17 urte bitarteko 18.000 ikasle baino gehiagori** bederatzi urtean.

Amaitu berri den ikasturteko berrikuntzetako bat izan da gazte kalteberak barne hartzea, lan-merkatuan sartzeko. Donostiako **Gureak lanbide-heziketako ikastetxeko 30 pertsonak** parte hartu dute esperientzian, eta esan dute oso pozik geratu direla.

Nabarmentzekoa da ikasleen eta irakasleen aldetik jaso dituen aldeko iritzi ugariak; izan ere, esan dute jokoan oso lagungarria izan zaiela etxeko ekonomia

batek nola funtzionatzen duen ulertzeko eta diruaren balioaz jabetzeko. Ildo horretan, **irakasleen % 88,4k** uste dute erabat laguntzen duela ikasleek finantza-gaitasunak eskuratzen, eta gainerako % 11,6k, berriz, modu nabarmenean laguntzen duela.

«Bizitzarako Finantzak» ikastaroaren helburua da gazteek helduarorako trantsizioan ezinbestekoak izango zaizkien funtsezko kontzeptuak ulertzea. Horregatik, tresna bereziki eraginkorra da DBHko 3. eta 4. mailako ikasgeletan, matematiken eta ekintzailetzaren arloko ikasgaietarako.

«Bizitzarako Finantzak» zuzeneko esperimentazioan eta joko-formatu fisiko batean oinarritzen da. Amaitzen ari den ikasturtean, parte hartu duten irakasleek uste dute edukiak, materialak eta jokoaren dinamika guztiz egokiak direla ikasleekin lantzeko, ulergarriak direlako eta bat datozelako bai errealitatearekin bai irakasgaiaren curriculum-edukiekin.

«Bizitzarako Finantzak» ikastaroaren IX. edizioan, saioak **euskaraz** egin dituzten ikasgelen kopuruak gora egin du berriz ere: **% 75 izan dira**. Gainerakoek, berriz, eredu elebiduna aukeratu dute.

Landutako jokoaren mailari dagokionez, nabarmen hazi da **maila aurreratuaren** eskaria, oinarritzko mailaren aldean, aurreko bi ikasturteekin alderatuta, **gutzizkoaren % 54** biltzen baitu.

Ekintzailetzaren kontzeptuak garrantzi handiagoa hartu du ikasturte honetan, «**startup**» izeneko pertsonaia berri bat sortu baita: emakume gazte ekintzaile bat da, plataforma birtual batean *vintage* arropa saltzeko negozio bat abian jartzen duena. Bere ilusioa da pertsona bat kontratatu ahal izatea edo fakturazioa handitzea adimen artifizialean inbertituta. Maila aurreratuan jokatu duten **81 ikasgeletatik hamarrek** sartu dute pertsonaia berri hori beren jokoan.

Kutxabanki buruz

Kutxabank Euskadiko eta Kordobako erakunde liderra da. 700 bulego inguru eta jatorrizko lurraldeetan kapilaritate handiena duen sukurtsal-sarea ditu, bai eta presentzia nabarmena ere Andaluzian, Madrilen eta Katalunian. 5.000 profesional baino gehiagoko talde batekin, gure finantza-sistemako bankurik kaudimendunena eta Europar arrisku-profil onena duen hirugarren erakundea da Kutxabank, Europako ikuskatzaileen arabera.